

IV - JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIA

ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN SALA

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia

Administrazio- Auzietako Salaren 1. Atala

0000090/2023 errekurtoa

Red Electrica de España SAK 0000090/2023 administrazioarekiko auzi-errekurtoa sustatu du energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioengatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu bereziagatik tasa arautzen duen Zalduondoko Udalaren zerga-ordenantzaren behin betiko onarpenaren aurka. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak – lehen atala- epaia eman du 2024ko maiatzaren 14an, 90/2023 zenbakiko jarduketetan – arrunta –. Epai hori irmoa da, eta honela dio epaitzak:

1. "Baietsi egiten dugu Maria Teresa Lopez Bajok, Red Electrica de España Saren izenean eta hura ordezkatzuz, jarritako 0000090/2023 administrazioarekiko auzi-errekurtoa, Zalduondoko Udalaren zerga-ordenantzaren behin betiko onarpenaren aurkakoa. Ordenantza hori tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu bereziagatik tasa arautzen du energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioengatik " ordenantza hori 2022ko abenduaren 30eko ALHAOn argitaratu zen, 150. zenbakian, eta deuseztatu egiten dugu, zuzenbidearekin bat ez datorrelako, baliorik eta ondoriorik gabe utziz.

2. Epai honen xedapen-zatia, irmoa bada ALHAOn argitaratuko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 72.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta argitaratzen denetik aurrera izango du eraginkortasun orokorra.

3. Ez dugu erabaki berezirik hartzen sortutako kostuei buruz.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko Legearen (AAJL) 107. Artikuluan xedatutakoa betez, jendaurrean jartzen da, guztiek horren berri izan dezaten.

Bilbao, 2024ko uztaillaren 23a

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN LETRADUA